**ENPLEGU PUBLIKOAN BEHIN-BEHINEKOTASUNA MURRIZTEKO PREMIAZKO NEURRIEI BURUZKO ABENDUAREN 28KO 20/2021 LEGEAN ARAUTUTAKO EGONKORTZEKO HAUTAKETA-PROZESUEI BURUZKO INFORMAZIO-OHARRA**

**NOTA INFORMATIVA SOBRE LOS PROCESOS SELECTIVOS DE ESTABILIZACIÓN REGULADOS EN LA LEY 20/2021, DE 28 DE DICIEMBRE, DE MEDIDAS URGENTES PARA LA REDUCCIÓN DE LA TEMPORALIDAD EN EL EMPLEO PÚBLICO**

| OHIKO GALDERAK | PREGUNTAS FRECUENTES |
|---|---|
| **EPEAK ETA DATAK** | **PLAZOS Y FECHAS** |
| **Noiz arte baloratuko dira merezimenduak?** | **¿Hasta cuándo se valorarán los méritos?** |
| 2022/12/28ra arte baloratuko dira, hau da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean egonkortze prozesuen oinarriak argitaratu aurreko egunera arte. | Se valorarán hasta el día 28/12/2022, que es el día anterior al de la fecha en que se publicaron las bases de los procesos de estabilización en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. |
| Beraz, alegatutako lan esperientziaren azken eguna, gehienez, 2022ko abenduaren 28a izan beharko du. | Por lo tanto, la fecha fin de la experiencia laboral alegada deberá ser, como máximo, hasta el 28 de diciembre de 2022. |
| Era berean, titulazioak eta/edo IT txartelak 2022ko abenduaren 29a baino lehen lortzen badira bakarrik baloratuko dira. | De la misma forma, las titulaciones y/o IT Txartelas sólo se valorarán si su fecha de obtención es anterior al 29 de diciembre de 2022. |
| Data hau hautaketa-prozesuaren amaieran egiaztatuko da; beraz, lan-esperientzian 2022/12/28aren ondorengo datarik alegatzen bada eta/edo 2022/12/28aren ondorengo titulazioak eta/edo IT txartelak alegatzen badira, autobaremazioa ez da zuzena izango. | La comprobación de la fecha se hará al final del proceso selectivo, de manera que si en la experiencia laboral se alegan fechas posteriores al 28/12/2022, y/o si se alegan titulaciones y/o IT Txartelas cuya fecha de obtención es posterior al 28/12/2022, la autobaremación será incorrecta. |
| **Noiz zabalduko da eskaerak egiteko epea?** | **¿Cuándo se abre el plazo de solicitudes?** |
| Eskaerak egiteko epea ez da zabalduko deialdia BOEn argitaratu arte, eta hori ez da otsaila baino lehen izango. | El plazo de solicitudes no se abrirá hasta que la convocatoria se publique en el BOE, lo que no será antes de febrero. |
| **Noiz egingo dira lehiaketa-oposizioa diren prozesuetako probak?** | **¿Cuándo se realizarán las pruebas de los procesos de concurso-oposición?** |
| Aurreratu dezakegu ez direla 2023ko urria baino lehen hasiko (2024rako aurreratuko dugu). | Podemos adelantar que no comenzarán antes de octubre de 2023 (anticipamos hacerlo en 2024). |
| **MEREZIMENDUAK** | **MÉRITOS** |

**LAN-ESPERIENTZIA**

**Zergatik lehiaketarako prozesuan, beste erakundeetan lan egindako baremoan gehienez 6 urte kontatzen dituen eta lehiaketa-oposizioan, aldiz, 4 urte?**

Lehiaketa bidez deitzen diren hautaketa prozesuek plazen iraupen luzeagoko interinitate bati erantzuten diote, 20/2021 Legearen 6 eta 8 xedapen gehigarrien babesean, lehiaketa-oposizio bidez deitutakoek ordea interinitate laburragoei, legearen 2. artikuluaren baitan.

**Operarien postuak hautatzeko prozesuetan (obrak, brigada, ur zerbitzuko laguntzailea eta lorezaintza), edozein espezialitatetako esperientzia baloratuko da?**

**Bai, edozein espezialitatetako esperientzia baloratuko da: ura, elektrizitatea, obrak, lorezaintza, brigada, zurgintza, errementaritza, pintura…**

**Ofizial lanpostuak hautatzeko prozesuetan (zurgina, igeltseroa, iturgina eta lorezaina), edozein espezialitatetako esperientzia baloratuko da?**

Ez, ofizialen kasuan, espezialitate bereko esperientzia baizik ez da baloratuko.

**Nola kontatuko da C1 maila eta C2 maila baloratzen diren lanpostuetako esperientzia?**

Bi mailetako esperientzia baloratuko da, bakoitzaren gehieneko puntuazioa kontuan hartuta.
**Adibidea:**
Administrarien lehiaketa-prozesuan, lan-esperientzia orokorrean, bi mailetan lor daitezke puntuak, C1 eta C2, baina bien baturak ezin izango du 60 puntu baino gehiago lortu. Gauza bera lan esperientzia zehatzerako.

**EXPERIENCIA**

**¿Por qué en el proceso de concurso, el baremo de trabajo en otras entidades cuenta como máximo 6 años y en el concurso-oposición 4 años?**

Los procesos selectivos que se convocan por concurso responden a una interinidad de mayor duración de las plazas, al amparo de las disposiciones adicionales 6 y 8 de la Ley 20/2021, mientras que los convocados por concurso-oposición responden a interinidades más cortas en el artículo 2 de la ley.

**En los procesos selectivos de plazas de Operario/a: obras, brigada, ayudante de servicio de aguas y jardinería, ¿se valorará la experiencia en cualquiera de las especialidades?**

Sí, se valorará la experiencia de cualquiera de las especialidades: aguas, electricidad, obras, jardinería, brigada, carpintería, herrería, pintura,…

**En los procesos selectivos de plazas de oficial: carpintero/a, albañil, fontanero/a y jardinero/a, ¿se valorará la experiencia en cualquiera de las especialidades?**

No, en el caso de las plazas de oficial se valorará exclusivamente la experiencia en la misma especialidad.

**¿Cómo se contabilizará la experiencia en las plazas en las que se valoran tanto la del nivel C1 como la del nivel C2?**

Se valorará la experiencia de los dos niveles, teniendo en cuenta el tope de puntos de cada una.
**Ejemplo:**
En el proceso de concurso de Administrativos/as, en la experiencia laboral general, se pueden obtener puntos en los dos niveles, el C1 y el C2, pero la suma de ambos no podrá superar la puntuación máxima de 60 puntos. Lo mismo para la experiencia laboral específica.

**Administrari eta administrari laguntzaileen lanpostuak hautatzeko prozesuetan, berdin baloratuko da departamentu edo espezialitate ezberdinetan lortutako esperientzia?**

Bai, administrari eta/edo administrari laguntzaileen lanpostuetan izandako esperientzia baloratuko da, azpitalde bakoitzerako ezarritako puntu-baremoaren arabera (C1, administraria eta C2, administrari laguntzailea), esperientzia departamentu bateko edo beste bateko lanpostu batean lortu den kontuan hartu gabe.

**En los procesos selectivos de plazas de administrativo/a y auxiliar administrativo/a, ¿se valorará igual la experiencia obtenida en los distintos departamentos o especialidades?**

Sí, se valorará la experiencia en las plazas de administrativo/a y/o Auxiliar Administrativo, según el baremo de puntos establecido para cada subgrupo (C1, Administrativo y C2, Auxiliar Administrativo) **independientemente de si la experiencia se ha obtenido en un puesto de un departamento o de otro.**

## HAUTAKETA-PROZESUAK GAINDITU IZANA

**Lehiaketa fasean, "Deialdia egin duen administrazioan oposizio-fasea gainditzeagatik" jartzen duenean, deialdia egin duen administrazioa Errenteriako Udala dela ulertzen al da?**

Bai, "Deialdia egin duen administrazioa" Errenteriako Udala da eta soilik Errenteriako Udalean egindako prozesuak baloratuko dira.

Plaza finkoen prozesuetako oposizio-fasea gainditzeagatik lortutako puntuazioak (karrerako funtzionarioen eta lan-kontratuko langile finkoen plazak, BOEn argitaratzen direnak) ez datoz bat aldi baterako plazetarako prozesuak gainditu izanarekin (bitarteko funtzionarioak eta aldi baterako lan-kontratuko langileak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean bakarrik argitaratzen direnak).

## SUPERACIÓN PROCESOS SELECTIVOS

**En la fase de concurso: "Por haber superado la fase de oposición de un en la Administración convocante". ¿Se entiende que la Administración convocante es solo el Ayuntamiento de Errenteria?**

Sí, la "Administración convocante" es el Ayuntamiento de Errenteria y sólo se valorarán los procesos realizados en el Ayuntamiento de Errenteria.

Las puntuaciones por haber superado la fase de oposición de procesos de plazas fijas (plazas de funcionario/a de carrera y personal laboral fijo que se publican en el BOE) son diferentes de las de haber superado procesos para plazas temporales (funcionario/a interino/a y personal laboral temporal que solamente se publican en el Boletín Oficial de Gipuzkoa).

## IT TXARTELAK

**IT Txartelaren ziurtagiriak:**
**Oinarrizkoak eta aurreratuak, metagarriak izango al dira?**

Oinarrizkoak eta aurreratuak metagarriak izango dira. Maila aurreratua egiaztatzen dutenak oinarrizko maila egiaztatutzat joko dira, beraz, bien puntuak gehituko dira.

Maila bakarra denean aurreratu moduan puntuatuko da eta, kasu horretan, bakarra zenbatuko da.

## IT TXARTELAK

**Certificados IT Txartela:**
**¿Serán acumulables los certificados básicos y avanzados?**

Sí, los básicos y avanzados serán acumulables. Quienes acrediten el nivel avanzado tendrán la consideración de nivel básico acreditado, por lo que se sumarán los puntos de ambos.

Cuando se trate de un solo nivel se puntuará como adelantado y, en este caso, se computará como único.

## OPOSIZIO-FASERAKO GAI-ZERRENDAK

## TEMARIOS PARA LA FASE DE OPOSICIÓN

"Liburuzain", "Kulturako Dinamizatzailea" eta "Hezkuntza eta Gazteria Dinamizatzailea"-ren lehiaketa-oposizioko gaitegi berbera da. Liburuzainak administrazio bereziko eskala daukagu (Ley 7/2021, de 11 de noviembre, de los cuerpos y de escalas de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, II. kapitulua, 14. artikulua), horregatik nire galdera da: **zergatik daukagu administrazio orokorreko gaiak:**

Estabilizazio-prozesu hauek bereziak dira, ez dira ohiko hautaketa prozesuetako baldintzetan ateratzen, horregatik lehiaketa-oposizio bidez deitutako plazetan oposizio-fasean egin beharreko ariketari begira gaitegiak ohikoak baino askoz laburragoak dira, gaien %50, eta plazen sailkapen taldea, eta eskala eta azpi-eskalaren baitan amankomunak diren gaiak sartzeari lehentasuna eman zaio. Izan ere, ondoren lehiaketa fasean lanpostu zehatzean izandako eskarmentua baloratuko da, ohiko prozesuetan baino puntuazio gehiagorekin eta irizpide zehatzagoen baitan.

**Zergatik dira komunak gai-zerrendak azpitalde bereko plaza guztietarako?**

Egonkortze-prozesuak hautaketa prozesu bereziak dira, eta aplikatuko zaizkien arauak ere bereziak dira.

Lehiaketa-oposizio bidez deituko diren plazen gaitegiari dagokionez, ohiko prozesuekin alderatuta gaitegiak %50era murriztu dira, legez derrigorrezkoak diren hainbat gai kendu egin dira (Konstituzioa eta Autonomia Estatutua esaterako), eta plazen sailkapen taldearen araberako gaitegi amankomun batzuk sortu dira, non gaiek hiru ezaugarriei erantzuten dioten:

1. Gaitegi administratiboan zein udaleko gaitegian oinarrizkoak diren gaiak.
2. Plaza/lanpostuaren ardura maila orokorrari erantzuten dioten gaiak.
3. Plaza/ lanpostuaren eremu funtzional orokorrari erantzuten dioten gaiak.

Kanpoan gelditu dira eremu funtzional zehatzeko gaiak, esan bezala gaitegiak %50era murriztu direlako, eta ulertuta lehiaketa fasean horien balorazioa egingo dela lan eskarmentuari ematen zaion balorazio bereziarekin,

Es el mismo temario que el concurso-oposición de "Bibliotecario", "Dinamizador Cultural" y "Dinamizador Educativo y Juvenil". Los bibliotecarios tenemos una escala de administración especial (Ley 7/2021, de 11 de noviembre, de los cuerpos y de escalas de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, capítulo II, artículo 14), por eso mi pregunta es: **¿Por qué tenemos temas de administración general?**

Estos procesos de estabilización son singulares, no se sacan en las condiciones de los procesos selectivos ordinarios, por lo que de cara al ejercicio a realizar en la fase de oposición en las plazas convocadas por concurso-oposición, los temarios son muy inferiores a los habituales, el 50% de las materias, y se ha priorizado la inclusión de materias comunes dentro del grupo de clasificación de plazas, escala y subescala. De hecho, posteriormente se valorará la experiencia en el puesto concreto en la fase de concurso, con mayor puntuación que en los procesos ordinarios y dentro de criterios más concretos.

**¿Por qué los temarios son comunes para todas las plazas del mismo subgrupo?**

Los procesos de estabilización son procesos de selección especiales y las normas que se les aplicarán también lo son.
En cuanto al temario de las plazas que se convocarán por concurso-oposición, se han reducido al 50% los temarios respecto a los procesos ordinarios, se han eliminado algunas materias legalmente obligatorias (como la Constitución y el Estatuto de Autonomía) y se han creado unos temarios comunes en función del grupo de clasificación de las plazas, en los que las materias responden a tres características:

1. Materias básicas tanto en el temario administrativo como en el municipal.
2. Materias que responden al nivel general de responsabilidad de la plaza/puesto de trabajo.
3. Materias que atienden al ámbito funcional general de la plaza/puesto.

Quedan excluidas las materias del área funcional específica, ya que tal como se ha dicho, los temarios se han reducido al 50%, entendiendo que en la fase de concurso se procederá a su valoración con la

eta gainerako merezimenduen balorazioarekin.

Dinamizatzaile (Kultura zein Hezkuntza eta Gazteria) eta Lekuonako teknikari laguntzaile lanpostuak eremu funtzional orokor berdinean kokatu dira, zeren nahiz eta egunerokoan egiteko ezberdinak eduki, lan esparru amankomun bat dutela ulertu delako.

Gauza bera egin da Komunikazio teknikaria eta Kultura-ondare, arte, artisautza eta museoen arduradunaren lanpostuekin.

Era berean, Ofizial Arotza eta Ofizial Igeltsero lanpostuentzako gai-zerrendak komunak dira.

valoración específica de la experiencia laboral y del resto de méritos.

Los puestos de Dinamizador/a (Cultura, Educación y Juventud) y de Técnico/a Auxiliar de Lekuona se han encuadrado en el mismo ámbito funcional general, ya que, a pesar de tener diferentes funciones en el día a día, se ha entendido que tienen un ámbito común de trabajo.

Lo mismo se ha hecho con los puestos de técnico de Comunicación y responsable de Patrimonio Cultural, Artes, Artesanía y Museos.

Asimismo, los temarios para los puestos de Oficial Carpintero y Oficial Albañil son comunes.

## DESENPATEAK

**Nola ebatziko dira berdinketak?**
**Berdinketa hausteko hainbat irizpide daude.**

- Berdinketa hausteko lehen irizpidea Errenteriako Udalean deialdiko plazako azpitaldean lanean ari diren emakumeen kopuruarekin lotuta dago. Deialdi bakoitzeko 7. oinarrian adierazten da irizpide hori aplikatuko den ala ez. Irizpide hori aplikatu behar bada, emakumeen % 40 baino gutxiago duten azpitaldeetako lanpostuetan, berdinketa izanez gero, emakumeei emango zaie lehentasuna.

- Berdinketa hausteko bigarren irizpidearen arabera, berdinketa Errenteriako Udalean zerbitzu-denbora gehien eman duen izangaiaren alde ebatziko da, **deitutako eskala, azpieskala eta/edo kategoria berean.**

- Berdinketa badago, Errenteriako Udalean denbora gehien eman duen pertsonaren alde ebatziko da.

- Berdinketa badago, beste administrazio publiko batzuetan denbora gehien eman duen pertsonari emango zaio ebazpena.

- Eta, azkenik, berdinketak jarraitzen badu, zozketaren sistemara joko da.

**Adibidea:** Demagun bi administrarik lehiaketa prozesuan 100 puntu ateratzen dituztela. Udalean administrari bezala antzinatasun handiena daukanak (egunetan) izango du lehentasuna administrari

## DESEMPATES

**¿Cómo se van a resolver los empates?**
**Hay varios criterios de desempate.**

- El primer criterio de desempate tiene que ver con el número de mujeres que hay trabajando en el Ayuntamiento de Errenteria en el subgrupo de la plaza convocada. En la base Nº 7 de cada convocatoria se indica si se aplicará este criterio o no. Si hay que aplicar este criterio, en las plazas de subgrupos donde hay menos de un 40% de mujeres, en caso de empate se dará prioridad a las mujeres.

- De acuerdo con el segundo criterio de desempate, el empate se resolverá a favor de la persona aspirante que hubiera prestado más tiempo de servicios, en el Ayuntamiento de Errenteria, **en la misma escala, subescala y/o categoría que se convoca.**

- Si sigue habiendo empate, se resolverá a favor de la persona que hubiera prestado más tiempo de servicios en el Ayuntamiento de Errenteria

- Si sigue habiendo empate, se resolverá a favor la persona que hubiera prestado más tiempo de servicios en otras Administraciones Públicas

- Y en último lugar, si persistiera el empate, se acudirá al sistema del sorteo.

**Ejemplo:** Supongamos que dos administrativos/as obtienen 100 puntos en el proceso de concurso. Quien tenga mayor antigüedad (en días) como administrativo en el Ayuntamiento tendrá preferencia para elegir entre

| Euskara | Castellano |
|---|---|
| lanpostu guztien artean berak nahi duena aukeratzeko. | todas las plazas de administrativo a su elección. |
| **LAN-POLTSAK** | **BOLSAS DE TRABAJO** |
| **Lan-poltsak sortuko dira prozesu guztietan?**<br><br>Ez, oposizio-lehiaketa direnetan bakarrik (gai-zerrenda eta azterketaren bat daudenetan). | **¿Se van a generar bolsas de trabajo en todos los procesos?**<br><br>No, solo en los que son concurso-oposición (en los que hay temario y algún examen). |
| **ZIURTAGIRIAK** | **CERTIFICADOS** |
| **Zer ziurtagiri mota eskatu ohi dira hautaketa-prozesuetan aurkezteko?**<br>1. Egindako zerbitzuen ziurtagiria<br>2. Eginkizunen ziurtagiria<br>3. Errenteriako Udalak deitutako hautaketa-prozesuak onartu izanaren ziurtagiria. | **¿Qué tipos de certificados se suelen solicitar para presentarlos en los procesos selectivos?**<br>1. Certificado de servicios prestados<br>2. Certificado de funciones<br>3. Certificado de haber aprobado procesos selectivos convocados por el Ayuntamiento de Errenteria. |
| **Noiz eska daitezke eta eskatu behar dira 3 ziurtagiri mota horiek?**<br>Normalean, hautaketa-prozesuaren azken fasean aurkeztu behar dira ziurtagiriak, hautatutako pertsonen zerrenda argitaratu ondoren.<br>**Ziurtagiriak ordura arte ez eskatzea gomendatzen dugu, ziurtagirien kudeaketa eraginkorragoa izan dadin.** | **¿Cuándo se pueden y deben solicitar esos 3 tipos de certificados?**<br>Normalmente, los certificados deben presentarse en la fase final del proceso selectivo, después de la publicación de la lista de persona(s) seleccionada(s).<br>**Recomendamos no pedir los certificados hasta ese momento para que la gestión de los certificados sea más eficaz.** |
| **Nola eskatu behar dira ziurtagiriak?**<br>Gaur egun Errenteriako Udalean lan egiten duten pertsonek 2022/01/13an Langilearen Atarian argitaratutako berrian adierazten den moduan egin behar dute eskaera.<br>Gaur egun Errenteriako Udalean lan egiten ez duten pertsonek eskabide bat egin behar dute ziurtagiri mota bakoitzari dagokion izapide telematikoa erabiliz:<br><br>1. Egindako zerbitzuen ziurtagiria E01904 (dagokion izapide telematikora iristeko estekan kontrol+klik egin).<br><br>2. Eginkizunen ziurtagiria. E00000 Eskaera orokorra, inprimaki normalizatuan (kontrola + klik dagokion izapide telematikora iristeko estekan).<br><br>3. Errenteriako Udalak deitutako hautaketa-prozesuak onartu izanaren ziurtagiria E01905 (kontrol+klik egin dagokion izapide telematikora iristeko estekan). | **¿Cómo se deben solicitar los certificados?**<br>Las personas que actualmente trabajan en el Ayuntamiento de Errenteria deben hacer la petición tal como se indica en la noticia publicada el 13/01/2022 en el Portal del Empleado.<br>Las personas que actualmente no trabajan en el Ayuntamiento de Errenteria deben hacer una solicitud utilizando el trámite telemático correspondiente para cada tipo de certificado:<br>1. Certificado de servicios prestados E11904 (control+clic en el enlace para llegar al trámite telemático correspondiente).<br><br>2. Certificado de funciones. E10000 Solicitud general, en modelo normalizado (control+clic en el enlace para llegar al trámite telemático correspondiente).<br><br>3. Certificado de haber aprobado procesos selectivos convocados por el Ayuntamiento de Errenteria E101905 (control+clic en el enlace para llegar al trámite telemático correspondiente). |

| KONTSULTA GEHIAGO | OTRAS CONSULTAS |
|---|---|
| **Non egin daitezke egonkortzeko hautaketa-prozesuei buruzko kontsulta gehiago?**<br><br>Idatzi e-mail bat hautaketak@errenteria.eus helbidera. | **¿Dónde se pueden realizar otras consultas sobre los procesos selectivos de estabilización?**<br><br>Escribiendo un e-mail a hautaketak@errenteria.eus |